

# **UCLA**

## **Mester**

### **Title**

Amodiozco istoria/Historia de amor

### **Permalink**

<https://escholarship.org/uc/item/97s591v4>

### **Journal**

Mester, 13(1)

### **Author**

Eguzkitza, Andolin

### **Publication Date**

1984

### **DOI**

10.5070/M3131013693

### **Copyright Information**

Copyright 1984 by the author(s). All rights reserved unless otherwise indicated. Contact the author(s) for any necessary permissions. Learn more at <https://escholarship.org/terms>

Peer reviewed

Zuganatu nahi nintzen eta  
harresi bat  
dut ediren,  
harritzar eta porlanez egina,  
bortitz, sendo, simetrikoa,  
ahurraz ferekatzean  
haatik,  
eskuzabalaz maitagunez losintzean,  
gutziz latza,  
eztitasunik gabeko,  
gorroto eta barraskiloen lingirdaz  
lizundua,  
erdeinuez kraskatua,  
destainezko buztinez beteak  
zirriztu eta hirrikilak.

Ilunez,  
haztamuka,  
eskuak odoldu ditut  
hargaineko beira hiltzatuez.  
Atzerantz bota nau higuintzak  
saiatu naizenean  
egunez.

Astiro, korriketan,  
jauziz eta sotiltasunez,  
etsipen eta desestimuz  
saiatu naiz,  
desira eta kemenez.

Herioa hurbil senditzean, ordea,  
latsa baten gurguraia  
entzun dut,  
gorputz gazte baten taupadak bailira  
landaminaren bestaldean:  
odola garbitu dut,  
ahoa gozagarriz busti,  
neure gorputz osoa  
bere egin.

## HISTORIA DE AMOR

He querido acercarme a ti  
y he encontrado una pared de piedra,  
de piedras grandes y cemento,  
poderosa, esbelta, simétrica,  
al acariciarla con la palma de mis manos  
sin embargo,  
al tocarla con cariño con mis manos abiertas,  
áspera,  
falta de toda suavidad,  
sucia por las babas del odio  
y los caracoles,  
resquebrajada de desprecios,  
llenas de barro de desdén  
todas sus rendijas.

Por la noche,  
a tientas,  
he ensangrentado mis manos  
con los cristales clavados encima.  
El asco  
me ha tirado hacia atrás  
cuando lo he intentado  
por el día.

Despacio, corriendo,  
a saltos, con elegancia,  
con desesperación y falta de estima  
me he esforzado,  
con deseo y fuerza.

Pero al sentir la muerte de cerca,  
he escuchado  
el murmullo de un arroyuelo,  
como si fueran los latidos de un corazón joven  
al otro lado del campo:  
he limpiado mi sangre,  
he refrigerado mi boca,  
he hecho de él  
todo mi cuerpo.

Enbor, amuarrain,  
hainbeste belarren eroale,  
erreka bihur honetatik  
inguratu zaitudala,  
azala hasi zait  
itsasoari buruz  
askatasunerantz  
esperantzaz freskatzen,  
gorputz osoa  
maitasunez lerdentzen.

Andolin Eguzkitza  
University of California  
Los Angeles

Cuando te he evitado  
por este río sinuoso  
que lleva ramas, truchas,  
y tantas hojas y hierbas,  
hacia el mar,  
hacia la libertad  
mi piel ha comenzado  
a refrescarse con esperanza,  
a florecer con el amor  
todo mi cuerpo.

Andolin Eguzkitza  
University of California  
Los Angeles